

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA

Argazeta

ARATZ, atzeratuen integrazioa gizartean

• Berri-Zahar
taldearen
mahaingurua

• Kirolak: Xabin
eta Jose Luis

• Gazteentzako
III. Bideo Jaialdia

3. Boteprontoan
Atzeratuen aldeko jaialdirik gabe...
4. Hamabostean behin
Ur probetxamenduen transferentzia.
5. Hamabostean behin
1946-47 kintoen afaria.
7. Hamabostean behin
Aldizkari gehiago, diru gutxiago.
- 8-9. Hamabostean behin
Futbol-zelai berriarekin bueltaka.
- 10-11-12. Erreportaia
Aratz: atzeratuen aldeko borroka.
14. Besteak beste
15. Kontu zaharrak
- 16-17-18. Jolasean
19. Apuntetako eta Aretxazoka

Nahi eta ezin

Urtero zita garrantzitsu bat "Aratz"ek antolatua: Atxabaltako artista denen umore eta kantua. Aurten isilik geratu arren guzti hoiien talentua atzeratuen alde izanik bada nora elkartua.

Diru-beharrak errifa ere jarria du indarrean laguntza ere ez da ematen beti era bakarrean. Horrenbestean izango gara konturatu beharrean herrian nor den atzeratua ta nor dabilen aurrean

Arantzazu Loidi

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Inaxio Garro, **Erredakzio-kontseilua:** Nati Abasolo, Marta Madinabeitia, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Alberto Garro. **Kolaboratzaileak:** Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi K.E, Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94.

Atzeratuen aldeko jaialdia faltan botako duzu?



Rosa Arrien
(Irakaslea)

Oso penagarria da. Egun berezia izateaz gain, eurentzat diru laguntza garrantzitsua dela uste dut. Jaialdian ez naiz egon, baina entsaiuetan egon naiz eta ondo dagoela deritzot.



Mariano Otero
(Jubilatua)

Horrelako ekitaldi guztietara joaten naiz. Nire ustez, jaialdi hauek ezin dira alde batetara utzi, guk ondo pasatzeaz gain eurek diru laguntza ederra jasotzen bait dute.



Iñigo Jauregi
(Ikaslea)

Ez dut uste horrelako ekitaldiak zineman egiteagatik ezer gertatuko denik, gainera eurentzat oso egun berezia izaten da. Hiru aldiz edo egon naiz eta benetan pena merezi du.

KARTAK

Egiaren bila

ORTZADAR TALDEAK, bere aurkako salaketa batzuen ondoren, Gobernu Batzordeko partaideei hurrengokoa adierazi nahi die:

1.- **ORTZADAR TALDEKO** ekintzak aurrera eramateko lokal batzuk izatea beharrezkoa da taldeekin egoteko. Lokalik gabe ezin ditugu gure ekintzak aurrera eraman, eta honek taldeari lotuta dauden 300 pertsonen egonezina eta haserrea sortu du.

2.- Pasatu diren urteetan

kexa batzuk izan ditugu, baina ez da arazo handirik sortu. Aurten Euskal Txokoa erabili dugu lehenengo egunean, ultimatum bat jaso dugu taldearen ardurapean ez dagoen aulki bat apurtzeagatik.

3.- Kexak jasotzerakoan, Euskarako zinegotzi eta garbitasunaren ardura daramaten begiraleen iritziak ezberdinak izan dira eta taldeko zuzendaritzan begiraketan gehiago sinesten dugu. Zinegotzi honek bakarrik gauzak konpontzea

nahi izan du, salatu dizkiguten arazoetan parte hartzen ez utziz eta beti, arazo guztitik kanpo geldituz, egien probak erakusteko aukera izan gabe.

Argi dago arazo honi irtenbide bat bilatu behar zaiola eta guk ere parte hartu nahi dugu. Honetarako behar den pertsonarekin bilera bat egitea gustatuko litzaziguke, denon artean gauzak konpontzeko.

ORTZADAR TALDEAK agur bero bat bidaltzeko aprobetxatzen du aukera hau.

Ortzadar atsedeen taldea



Aurreko ekain eta uztailean 10 urtetik gorako kotxe zaharra utzi eta berri bat erositako lagunen artean, Arrasateko Mecak mendiko bizikleta dotore bat zozketatu zuen.

Zozketa horren sariduna Manuel Tejeiro Perez atxabaltarra suertatu da. Hemendik aurrera, kirola egiteko aukera ederra izango du eta ezin izango du inolako atxakirik ipini. Gure aldetik, Zorionak.

Ur baliabide eta probetxamenduen transferentzia

1994ko uztailearen lehenaz geroztik, Euskal Autonomi Elkaratek ur baliabide eta probetxamenduen alorreko baliabide eta zerbitzuen transferentzia jaso du.

Transferentzia horrekin, Euskal Autonomi Elkaratek aginpide du ibilbide osoa Euskal Autonomi Elkaratean egiten duten ibaietako (Elkarte barruko arrotako) ur baliabideen plangintza

eta gestioa burutzeko, arrotan Euskal Autonomi Elkarateko lurraldearen %25 hartzen dute. Transferentzia hori osatzeko, ibilbide osoa Elkaratean egiten ez duten hainbat ibai (elkaratearotako) kudeatzeko agindu zaio, Autonomi Elkaratea zeharkatzen duten ibaien erabilerari eta kontserbazioari tratamendu uniforme eta egokia eman ahal izateko. Elkarateko arrotan lurralde

guztiaren %75 hartzen dute.

Beraz, aurtengo uztailez geroztik, Garraio eta Herrilan Sailaren ardura da ura, hain beharrezko eta hain urri dugun baliabide hori ondo erabilarazi eta kontserbatzea. Erabiltzaileak, hemendik aurrera, solaskide bakarra izango du, "lehiatila" bakarrera jo beharko du arlo horretako arazoak konpon diezaizkieten.

ANGELINES
Autozerbitzua



Mitarte, 16

☎ 79 61 42

**IZOTZ
TABERNA**

Mitarte, 16
☎ 79 73 65

BITXITEGIA

MIREN & ZURINE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN KONPONKETA

Otalora kalea, 4

Eliza aurrean

Tfnoa: 77 13 57



Mitarte kaletik pasatzea besterik ez dugu atxabaltarrrok, gure herrian artista ugari ditugula konturatzen.

Pintada honen egileak Aritz eta Gaizka Larrinaga anaiak dira eta Atxabaltako Intsumiso Taldearen bitartez margotu dute.

Gaur egun gure ormetan pintada ugari ikusteko aukera izaten dugu, eta ez oso txukunak gainera, baina kasu honetan, egileek zoriontzeko lana egin dute.

Hauek bai martxa.1946-47 urtetako kintoak dira. Aurreko zapatuan, Taberna-Berri jate-txean 60 bat lagun elkartu ziran. Lehenik, meza izan zuten eta gero bazkari ederra dastatzeko aukera izan zuten: zizka-mizkak, legatz bete, solomotxo eta bukatzeko tarta eta bainilozkia. Ardoa eta txanpaina ere ez zen falta izan eta gero Kintanilla soinu-jotzailearekin dantza ugari egin zuten. Hau dek umorea!



ARLUTZ TABERNA

Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34



Berri-Zahar taldeak antolatutako mahaingurua

Euskaldun guztiak eredutzat har genitzake, pertsona batzuek euskararekiko harzen duten jarrerara ikusi ondoren. Horrela, aurreko martizenean Loramendi K.E.aren lokalean, Berri-Zahar taldeak mahainguru bat prestatu zuen eta 60 lagun inguru bildu ziren.

Oso giro ona egon zen, eta bakoitzak, euskera ikasteko orduan izandako bitxikeriak kontatu zituen. Hau dela eta, barre algarra ugari egiteko aukera izan zuten bertan izan zirenek. Norbaitek, erdi txantxetan zebiltzabela eta, bere maixuari aizkorakada ederra emateko aukera ere ez zuen alferrik galdu.

Mahainguruan lau euskaldun berrik hartu zuten parte. Honakoak izan ziren hizlariok:

Toni Lauson

E.E.B.B.etan jaiotako neska gaztea. Bere jaiotze herria Boise (Idao) da, nahiz eta Zarautzen

bizi. ELKARRIko harreman internazionalen koordinatzailea da.

Said Meashi

Pakistanen jaioa. Hamaika urte zituela, Oñatira etorri zen. Bere ikasketak Eskoriatzako Irakasle Eskolan burutu ditu. Orain Oñatiko igerilekuan egiten du lan.

Jabier Etxebarrieta

Hau besteak baino ezagunagoa da guretako, Atxabaltakoa baita. Coprecin egiten du lan.

Jabi Alonso

Hau ere atxabaltarra dugu eta, aurrekoak bezala, Coprecin egiten du lan. Berri-Zahar taldeko partaidea da

Moderatzaile lanetan Jabier Markos aritu zen, Atxabaltako kazetaria


Toni eta Said atzerritarrak direla jakingo ez bagenu, betiko euskaldunak direla esango genuke askok. Denok horrelakoak izango bagina...

Gazteentzako III. Amateur Bideo Argumentalari Jaialdia antolatu du Gasteizko Indar Taldeak. Oinarriak hauek dira:

- 1.- Ez dira kontuan hartuko erabili diren baliabide teknikoak, baizik eta originaltasunak, mamiak eta interpretazioak.
- 2.- Edozeinek har dezake parte, nahi beste filme aurkeztuz, baina arau hauetara egokitu beharko da.
- 3.- Izena emateko epea abenduaren 31n amaituko da eta 5.000 pzta. eman beharko dira pelikula bakoitzeko.
- 4.- Aurkeztutako filmeez ezaguri hauek bete beharko dituzte:

- Argumentalak izango dira.
- 1.994-95 urteetan zehar filmatutakoak.
- Iraupena, 30 minutu baino gutxiagokoa.
- Aktore/aktoreak gehienbatean, 18 urtez beherakoak.

**T
X
I
L
A
R
R
A**



**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35

Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9

Tfnoa: 79 44 28

ARETXABALETA

Aldizkari gehiago, diru laguntza gutxiago

Euskarazko aldizkariak ugari diren arren, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak %20 jaitsi dira 1991-94 urte bitartean, kaletan dauden aldizkari guztiak kontuan hartzen baditugu.

Hiru urte hauetan ez da diru laguntza kopururik murriztu, baina orain aldizkari gehiagoren artean banatu behar da.

1991n, diru laguntza 45 milioikoa izan zen eta aurten, berriz, gehienez 75.500.000 pezeta banatuko dira. Horrela ikusita ondo dagoela dirudi, baina kontuan hartu behar da 1991n 18 aldizkariren artean egin zela banaketa, eta aurten 49 aldizkariren artean

"Jakin" aldizkariaren ustez, aldizkari mota guztiak zaku beorean sartzea ez da oso egokia. Aldizkari nazionalak eta herri aldizkariak desberdindu egin behar dira. Momentu honetan, "Jakin"en ustez, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak lehenetsuna ematen die prentsa lokalari eta herrietako aldizkariari, inolako bereizketarik egin gabe eta behar ezberdinak dituztela kontuan hartu gabe.

Diru laguntzak 30 milioitan igo arren, aldizkariaren egoera larriagoa da. "Jakin"en arabera, engainagarria da diru laguntza hauen igoera. "Gure kasuan hiru urtetan, DE FACTO, erdira jaitsi zaigu dirulaguntza. Eta, hala ere, gure produktuari bere horretan eutsi nahi diogu, nola maiztasunean hala kalitatean. Ondorioz, lan baldintzak okertu egin zaizkigu zeharo, eta okerrera: Jainkoak edo deabruak erremediatzen ez badu, laburra da gure bizi-itxaropena".

Diru laguntzak banatzeko orduan, zintzotasun falta dagoela

uste du "Jakin"ek. Banaketa honetan, euskarazko kultura idatziak oro har, eta bereziki aldizkariak, desabantailan daude ikus-entzumenezkoen aurrean.

Herri aldizkariak ez dute inolako autonomia eta Eusko Jaurlaritzak ematen dituen dirulaguntzen menpe aurkitzen dira. Honen ondorioz, aldizkari hauek, Eusko Jaurlaritzak jarritako baldintzen arabera egin behar dute lan, eta honek konpetibitatea kentzen dio aldizkariari.

Sistema honekin Eusko Jaurlaritzak bi helburu ditu: kontrola eta laguntza.

	1991	1992	1993	1994
ARGIA	13.000.000	12.000.000	12.629.000	13.000.000
Elhuyar	8.500.000	8.300.000	7.496.700	6.348.100
Ipurbeltz	6.000.000	6.000.000	4.252.200	5.074.000
Jakin	9.000.000	8.668.000	6.892.800	5.513.900
Karmel	1.000.000	1.000.000	492.000	628.900
Kili-Kili	3.500.000	3.500.000	3.189.000	2.082.300
Aizu!	3.000.000	2.800.000	2.884.800	2.753.000
Bertsolari	1.000.000	1.336.000	622.200	651.800
Guztira	45.000.000	43.604.000	38.458.700	36.052.000

AITZIBER NIÑO



Lezama Merkatal Zentrua
Tlfnoa: 79 13 32

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34
79 31 87

JOSU URDAITEGIA

Mitarte, 1

Atxabaltako futbol-zelai berriari buruz arazo gehiago



P.S.E.-E.E alderdiaren proposamena ...

Atxabaltako futbol-zelai berria egiterakoan, Diputazio aldetik datorren diru laguntza jasotzeko, Atxabaltako eta Eskoriatzako Udalak ados jarri behar ziran urriaren 3a baino lehenago. Hau gertatu ez denez, eta diru laguntza hori ez galtzeko, bi Udaletako P.S.E.-E.E.ko partaideek, proposamen bat egin dute hurrengo plenoan aurkezteko.

Oro har, hau da proposamenaren mamia:

1.-Atxabaltan, futbol-zelai berria egitea, eta aldi berean Eskoriatzan osagarria izango den beste futbol-zelai bat egitea.

2.-Diputazioak emango duen diru laguntza bi Udalen artean erdibana zatitu.

3.-Hasieran, Atxabaltako Udalak jasoko du diru laguntza guztia eta %50a Eskoriatzako Udalarari eman beharko dio, alde zuretik abal bat jarriz.

4.-Udal bakoitza bere herrian egindako futbol-zelaiaren jabe izango da, eta bertan sortzen diren gastu guztiak norberaren kontu izango dira.

5.-Atxabaltan futbol-zelai berria laister bukatuko da eta Eskoriatzan, oraindik ezer egin gabe dago. Beraz, Eskoriatzako futbol taldeak bertan partidu ofizialak jolasteko eta astean zehar entrenatzeko eskubidea izango du. Gastuak erabilitako orduen arabera banatuko dira.

GUREA

TABERNA
JATETXEA

Durana Kalea
Ifnoa: 79 20 64



MAPFRE

Aseguroak

Errekañabarren, 3
Ifnoa: 77 11 76

MATIKUA

Taberna

Azatza auzoa
☎ 79 16 68
ARETXABALETA

Gakoa: "Mankomunatua" hitza



...eta U.D.A.ren jarrera

1993ko uztailean, nahiz eta negoziaketak orain dela 6 bat urte hasi, Aretxabaletako Udala eta Atxabaltako Kirol Elkarteak akordio batetara iritsi ziren.

Hitzarmen honen arabera U.D.A.k bereak ziren eremuak Atxabaltako Udalari saldu zizkion 50 milioi inguruan eta era berean, Atxabaltako Udalak beste futbol-zelai berri bat egiteko betebeharra hartzen zuen.

Horrela, futbol-zelai berria egiteko prestakizunak martxan

jarri ziren. Azken egun hauetan, aldiz, zurrumurru batzuk heldu zaizkio U.D.A.ri; itxura denez, Diputazioaren diru laguntza jasotzeko, futbol-zelaiak mankomunatua izan behar du, hau da, Eskoriatzak ere bertan jolasteko eskubidea izango luke.

U.D.A.k galdera hau egiten du, orain dela urtebete futbol-zelai bat genuen eta entrenatzeko areezko beste bat, nola izan daiteke orain futbol-zelai bakarra edukitzea eta gainera beste talde

batekin erdibana? Ea nor den galdera honi erantzuteko gai.

Dena dela, Atxabaltako Udalaren eta U.D.A.ren artean sinatutako hitzarmenean, garbi ageri da futbol-zelaia U.D.A.ren erabilpenerako izango dela eta beste talderen batek bertan jolastu nahi badu, U.D.A.ren baimenarekin izango dela.

Gauza bat garbi utzi behar da, Atxabaltako eta Eskoriatzako Kirol Elkartearen artean ez dagoela inolako tirabirarik.



URBALTZ
TABERNA

Mitarte 21, behea
Tlfnoa. 79 79 79
ARETXABALETA



MITARTE
GARAI

• *Jatetxea eta logelak* •

Areantza auzoa
☎ 79 17 51

ARATZ: Atxabaltako atzeratuen aldeko borroka

Adolfo Etxebarria, ARATZ taldeko lehendakaria dugu. Dagoeneko, talde hau sortu zenetik 14 urte pasatu dira, nahiz eta orain dela 2 urte Donostian ofizialki erakunde bezala inskribatu zen.

Talde honen helburu nagusiak, gizartean atzeratuak integratu eta momentu honetan herritik kanpo baina bertakoak diren atzeratuak hona etorriaraztea dira.



Adolfo Etxebarria

• Nola sortu zen talde hau?

Hasiera batean, bakoitza geure aldetik ibiltzen ginen norberaren arazoak konpontzeko. Orduan konturatu ginen, denok elkartzero, askoz ere errazagoa izango litzatekeela gure helburuak lortzea. Honela, gure indarrak batu egin genituen eta ARATZ taldea sortu zen.

• Nola da taldearen barne funtzionamendua?

Taldeak 14 bazkide ditu. Bazkide hauek, urtean zehar kuota batzuk ordaintzen dituzte, baina diru kopuru hau sinbolikoa da gehienbat. Gero, beste edozein talde bezala, burugo bat dago; bost pertsonak osatzen dugu. Urte bukaeran, Batzar Nagusian biltzen gara lortutako eta lortzeko dauden helburuei buruz hitz egiteko.

• Zer esan nahi du integrazioa hitzak?

Guretako integrazioa hitzaren esanahia, umea atzeratuak herri barruan egon daitezela da eta era berean beste edozein ume bezala onartuak izan daitezela. Pertsona aldetik behintzat, ez dadila ezberdintasunik egon.

Ezinbestekoa da Atxabaltak eskaintzen digun laguntza, berari esker mantentzen dugu taldea

• Atxabaltarrok ulertzen dugu hitz horren esanahia?

Atxabaltako herriarekin oso pozik nago. Ez dugu inolako arazorik eduki ez Ikastola aldetik ezta jendearen aldetik ere. Orain arte Atxabaltan eskatu dugun guztia lortu dugu eta talde hau oraindik martxan badago, Atxabaltako

herriari esker da.

• Lortu duzuenarekin pozik zaudete?

Izugarrizko alde dago hasiera batetako eta oraingo egoeraren artean. Taldea sortu baino lehenago, dispersioa zen arazorik gogorrena. Egindako lehenengo gauza atzeratuendako tailerra izan zen. Dena dela, orain dugun erronkarik garrantzitsuenak, atzeratuendako pisu bat edo bi, txikiak badira, lortzea da. Atzeratuak euren familiak gal ditzakete eta bakarrik gelditu daitezke. Kasu horietarako, Atxabaltan eurentzat leku berezi bat lortzea da gure asmoa. Horregatik, Udalaren laguntza behar dugu, pisu hauek eskaintzea da gure helburua, guk jantziko genituzke eta Foru Aldundiak ematen duen diru laguntzen bitartez ordainduko genituzke atzeratuak zaintzeak sortutako gastuak.

• Ze laguntzak ematen dituzte erakunde publikoek?

Orain arte ez diogu ezer eskatu Diputazioari, nahikoa izan dugu guk lortutakoarekin. Lehenago aipatutako helburu berria lortzeko, aldiz, Diputazioari laguntza eskatu diogu eta eskuak zabal-zabalik hartu gaituzte.

• Eta Atxabaltako Udalak?

Eskatu diogun guztia eman digu orain arte, baina gehienekoa erri-fa, jaialdi eta horrelakoekin lortzen dugu.

• Nola banatzen dituzue laguntza horiek?

Momentu bakoitzaren behararren arabera. Orain bi atzeratu daude Atxabaltatik kanpo, bata Donostian eta bestea Zizurkilan. Bi lagun hauek zaintzea eta mantentzeak gastu handiak ditu euren familientzat (bidaiak, sendagi-leak...). Orduan, guk lortutako dirua, kasu hauetan erabiltzen dugu, baina ez dugu dena gastatzen, momentu larri bati irtenbidea emateko, aldeztatik diru kopuru bat gordetzen dugu.

• Zeintzuk dira atzeratu baten pentsakera, gauzen aurrean duten jarrera?

Momentu honetan, herri barruan integratuak daude eta honen aurrean euren jarrera pozgarria da, jendeak ezagutu egiten ditu eta onartuak sentitzen dira. Kanean ibiltzen dira euren lagunekin jolasean, azken finean orain bizi egiten dira.

• Non daude atzeratu baten mugak?

Bakoitzak bere mugak ditu. Ezberdintasun asko daude euren artean, batzuk oso sakonak dira, hauen muga haundiagoa da.

Dena dela, gauza bat garbi dago, muga horiek zabaldu egin daitezke lanaren bitartez. Txikitatik jarraipen bat ematen bazaio, hasierako mugak gaintu egiten dira. Adibide garbia Atxabaltan dugu, orain dela urte batzuk atzeratuak askoz ere mugatuagoak zeuden eta laister heltzen ziren topera, orain berriz muga horiek askoz ere urrunago daude.

Askotan, ezberdintasunak guk egiten ditugu berez ez daudenean, eta hori oso gogorra da eurentzat

• Hobetzen hasi da atzeratuen egoera gizartean?

Inolako dudarik gabe. Arlo honetan gizartearen pentsakera gutiz aldatu da. Aldaketa honen arrazoirik nagusia, gurasoen aldetik hartu dugun jarrera izan da. Guk lan asko egin dugu jendearen sentzibilitatea iratzartzeko eta ara-

zo honen berri emateko, pertsona normalak direla konturatu daitezten. Orain, beste lagun batzuekin jolasean ikusten dituztenean, gai honi buruz euren aurreko ezjakintasunaz konturatzen dira. Egoera honetan gauden familiek ezin dugu umea etxean isolatu eta gizartetik aldentu. Dena dela, kanpotik ere laguntza asko jaso dugu, bereziki andereñoen aldetik.


• Aurten jaialdirik gabe gelditu gara...

Oso triste gaude. Ez da ekonomiarloagatik, baizik eta egun berezia izaten delako bai atzeratuendako eta baita atxabaltarren-dako ere. Hasiera batean, Udalaren aldetik baietza genuen eta dena prest zegoen. Gainera aurten jaialdi oso ona zen, berezia, eta dena pikutara joan da. Udalak ez du oso garbi jokatu eta baietza eman ondoren gu joan behar izan gara ezetzaren berri jakitera surrumurru batzuen ondoren, euren aldetik ez genekien ezer eta. Dena dela, momentuz atzeratu egin da eta noizbaiten egitea espero dugu.



Aurten ezin izango dugu jaialdirik ikusi

Argazkian ageri dena Lurdes Etxebarria da. Atxabaltan bere egoeran gazte gehiago ere badaude, baina denekin ezin egon eta neska gazte hau hartu dugu elkarrizketatzeko. Lerro hauen bitartez, gazte hauei omenaldi txiki bat egin nahi diegu eta era berean, jendea sentzibilizatu.



Lurdes egunero joaten da Kurtzebarri ikastolara, beste edozein neska-mutil bezala.

Ikastolaz gain, astelehen eta eguaztenetan Arrasatera joaten da eta eguakotxetan Gasteizera, erakunde berezi batetara.

Berarekin izan gara ikastolan egiten duenaren berri izateko:

• **Gustora joaten zara ikastolara?**

Bai, hemen lagun asko ditut eta oso ondo pasatzen dut. Gainera lan asko egiten dugu; Matematikak, Gizarte, Ingelesa... Liburutegian ere egoten naiz eta asko irakurtzen dut.

• **Zer da ikastolan egitea gehien gustatzen zaizuna?**

Guztira, baina gehien fotokopiak ateratzea da. Horrez aparte, Aretxagazeta aldizkaria ere banatzen det.

eta gela bakoitzean dagozkien aleak uzten ditut.

• **Olentzerori zer eskatzea pentsatu duzu?**

Ez, oraindik asko gelditzen da.

• **Ikastolatik irten eta zer egiten duzu?**

Etxera joaten naiz eta bokadilo haundi bat jaten dut. Aste bukaeran, Elorrioko edo Mendiolako baserrira joaten naiz eta asko jolasten dut.



Lurdesez ikastolan egindako marrazki bat

Xabin eta Jose Luis, kirolaren alde jo eta ke



Kirola egitea beharrezkoa da osasunarentzat. Kirola egite-rakoan, gorputzak soberan dituen koipeak erretzen ditu eta osasuntsuago aurkitzen gara.

Baina kirola ez da nolanahi egin behar, kontrol bat jarraitu behar da gorputzerako kaltegarria izan ez dadin. Momentu honetan, bi atxabaltar ditugu Almen ikastolan umeei kirola nola egin behar den irakasteko: Xabin Arriola eta Jose Luis Eraña.

Bi gazte hauek Gasteizen burutu zituzten S.H.E.E.ko (I.V.E.F.) ikasketak. Xabinek 25 urte ditu eta Jose Luisek bat gutxiago, 24. Biak elkarrekin egon

ziren Gasteizeko pisu batetan eta orain ere Almenen jarraitzen dute, elkarrekin kirol munduan murgildurik.

Xabinek 2urte t'erdí daramatza Almenen, eta hasiera batetan beste urte baterako kontratua du. Jose Luis berriz, urte honetan hasi da beste irakasle bat ordezkatzeko eta teorikoki, hau sendatu arte jarraituko du.

14-16 urte bitarteko ikasleekin ari dira lanean eta bakoitza 6 gelen arduradunak dira.

Baina kirolarekin duten lotura ez da hemen amaitzen. Xabin eskola orduetatik aparte, kirol ekin-tza extraeskolarretan aritzen da;

Almeneko entrenatzaileei laguntzen die eta aldi berean, eskubaloitako talde gazte bat zuzentzen du. Hau nahikoa ez balitz, TAFID moduloko irakaslea da eta gainera Atxabaltako nesken futbol taldearen entrenatzailea ere bada.

Jose Luisek, Arrasateko Kirolletxean ere badu zer eginik; mantentze soinetan aritzen da, hau da, 18 urtetik gorakoak forman mantentzea da bere betebeharr nagusia.


Almenen ikusi dutenaren ondoren, ikastoletan kirol arloa asko aldatu dela uste dute. Lehenago ez zegoen inolako plangintzarik eta umeei ez zuten kirol hezkuntza egokirik. Orain aldiz, kirolari garrantzi gehiago ematen zaio eta alde zuzenetik ezarritako programa bat jarraitzen da.

Almenen, kirolak pisu asko du eta horren adibide, egin duten gimnasileku eta pilotaleku berriak. Gainera, umeei ordutegitik aparte, kirol asko egiten dute euren borondatez.

Atxabaltan gimnasileku egoiki bat egotea da momentu honetan biek duten ametsa.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria

**ZARAIA
TABERNA**

GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA ANAIK

Santa Zezilia



J.J. Aretxaga

Joan zen martizenean Santa Zezilia eguna izan zen, musikoen eguna. Eta amaginarrebak esan didanez egun horretan, baina orain dela 42 urte, urten zuen lehenengo aldiz herriko bandak, 1952an. Baina utzi egin zioten joteari. Ordutik herriko bandaren zain gaude. Hala ta be, zerbaitetan ei dabilta eta lehengo egunean "herriko" bandak jo zuela esan didate, baina ez zuten inon anuntziatu, ez nuen iragarkirik inon ere ikusi eta ezkutuan dabilzala ematen du. Herriko banda gauza serioa da eta detaile horiek hobeto zaindu beharko lituzkete banda aurrera atara gura dutenek. Bestetik, kuriositate bat daukat. Zenbat herritar dabilta "herriko" bandan?

Etxean barriro aldaketak ditugu. **Jon Arriola** hasi da publizitatea topetan aldizkari honetarako. Hurrengo urteko publizitatea topatu behar digu. Hartarako gabonak arte egongo da gurekin. Fubolistaz beteten dabil etxe hau. Modako mutilak, futbolistak eta enpresariales egindakoak. Ia gure enpresatxoa nora daroaten. Gaia

aldatuta, Behobia-Donostia maratoi erdian atxabaltarrak presente egon ziren. Autobuskadatxoa joan zen parte hartzera edo ikustera. Nik dakidanez, lehenengo atxabaltarra **Ramon Domaika** izan zen. Jendeak esango du, eta **Ramon Jausoro** zer? Ramon Jausoro Mallorcara doa datorren hilean, bertako maratoina. Ailegatu zaidanez, gainera, marka on bat egiteko intentzioaz ei doa.

Normalean ezkontzak ez ditut hemen aitutzen. Baina oraingoan Aretxagazetako kolaboratzaile bat ezkondu da eta aitatu egingo dut. Dolum... ez, zorionak **Iñaki Urretari**.

Joan zen egunean Loramendiko Berri-zahar taldekoek (euskaldun barriak) antolatuta mahaingurua egin zen. Mahainguruan hiru atxabaltarrek parte hartu zuten: Jabier Markos, TU lankide (euskaraz HI lankide) aldizkariko arduraduna, Jabier Etxebarrieta eta Jabi Alonso, biak Copreciko langileak. Eta hiruren izena Jabi, hori bai kasualitatea. Herri honetan Jabi izatea bentaja ete da euskara ikasteko? Samurrago eta aguroago ikasten ete dute? Dena dela, txapela kentzekoa.



Orain dela 30 bat urte atera zen argazki hau. Gure gurasoek beti esan ohi digute, euren sasoin lan besterik ez zela egiten, gu alfer hutsak garela eta gaurko gazteak ez garela lan egiteko jai.

Baina, argazki honetan ikusi dezakegunez, eurek ere bazuten parranda batzuk egiteko denbora. Beraz beharbada, ez dute horrebesteko lanik egin eta gu bezain juergazaleak izan ziren. Kasu honetan, Taberna-Berrin egin zuten bazkaria, eta nahiago dut eguna nola bukatu zen ez jakitea.

Argazkian agertzen direnak hauek dira:

Behetik eta ezkerretik hasita: Pantxo Intxauspe, Fermin Lasagabaster, Eduardo Altube, Angel Etxabe, Amozarrain, Jabier Igartua, Jose Altube, Jose Antonio Leanizbarrutia.

Erdian eta ezkerretik hasita: Errasti (atzean dagoena), Emilio Garro, Jose Vitoriano, Angelines Pérez, Bernabe Makazaga, Joaquin Rodriguez, zerbitzaria, Pablo Urkia, Vidal Castro, Iriarte, Ramón Barrutia.

Goialdean eta ezkerretik hasita: Andoni Antxia, Jacinto Azurmendi, Sabino Larrañaga, Miguel Iturrospe, Deunoro Bengoa.

Josuk, 21 urte.
Anak, 19.

Duten adinarekin,
bidaiatu egiten dute.
Topera gozaten dute.
Dantza egiten dute.
Proiektuak dituzte.
Presarik gabe bizi dira.
Egunean egunekoa bizi
dute.
Aurreztu eta gastatu
egiten dute.

57 eta 55 urte dituzten
Fermin eta Mirenek
bezalaxe.




55 urtetik gora baduzu eta gehien atsegin duzuna egin nahi baduzu, Euskadiko Kutxaren Super 55 Libreta.

- %5*erainoko U.T.B.a.
- Zerbitzuak, eskaintzak eta atentzio eskusiboak.
- Eta kontsultatzeko doako Zerbitzu Telefonikoa**: 900 555 900 zkia.

Informa zaitetzukurtsal honetan.


*100.000 pta.ko gutxienezko saldotik aurrera, lehen 100.000 pta.k %0,10ean. UTBar buruzko adibideak: 250.000 pta.rako %3,11. 1.000.000 pta.rako %4,61. 5.000.000 pta.rako %5,01. ** Campus Kultur Elkarteak kontratatuturikoa.

Super 55 Libreta


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Hau izan da, "Argazkiarekin jolasean" eta "Galderekin jolasean" jokuarekin egin dugun azken zozketa.. Dena dela, oraindik ARETXAGAZETAKO bazkide izateagatik sari ederrak irabazteko aukera izango duzu.

**BAZKIDEEK
BAKARRIK IZANGO DUTE
JOKU BARRI
HONETAN PARTE
HARTZEKO AUKERA**


**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

▼ Hamabostero galdera bera egingo da eta hurrengo hamabostaldian ezagutuko dugu irabazlea.

▼ Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datoren eguna baino lehen..

▼ Aurreko zenbakiko erantzuna:
Ramon Eraña.

▼ Aurreko lehiaketaren irabazlea:
Arantzazu Loidi.

✓ Erantzun galderak

- Zein da Euskadiko Kutxak gazteen-tzako duen produkturik onena?
- Eta 55 urtetik gorakoenentzat?
- Zein herritan dago Euskadiko Kutxaren bulego zentrala?



Erantzunak: a).....
b).....
c).....

Izen-abizenak:.....


Helbidea:.....

Tfnoa:.....

Honako hau duzue hurrengo aleko asmatzaileen artean, EUSKADIKO KUTXARI esker, zozketatuko duguna, beti ere ARETXAGAZETAKO bazkideen artean:



PORTZELANAZKO BAXERA BIKAIN BAT



MANACOR-eko PERLA JOKU EDER BAT



LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

25

EGUAKOTXA

• Euskalduna eta 17 urtetik gorakoa bazara, joan zaitez arratsaldeko 7etan Loramendi K.E.ren lokalera.

• Murrukixo M.E.k antolatu duen "Mendiko Astearen" barruan, Ramon Hernando de Larramendi izango dugu, Artikoan zehar hiru urtez pasatutako esperientziak kontatzeko.

26

ZAPATUA

• Murrukixo M.E.k antolatutako ekintzen artean, **Gruas Usabiagakin goming** izango dugu.

• Arrasateko zineman, "Todo es mentira" filmea izango dugu 7etan eta 10etan.

OHARRA: Abenduaren 7tik 11ra bitartean, Durangoko Azokan nobedade asko aurkeztuko dira (liburuak, diskak, etabar). Anima zaitez.

27

DOMEKA

• Urrekira urteera izango dugu, Zاراia M.T.k antolatuta.

• "Mendiko Astea" rekin bukatzeko, Murrukixo M.E.k urteera bat antolatu du **Lezeko Zulora**. Ordua 9etan izango da Partenoitik.

• Arrasateko zineman, "Volar por los aires" filmea izango dugu, 7,30etan eta 10etan.

ARETXAZOKA

Lana

✓ Masailari diplomatuak bere zerbitzuak eskaintzen ditu. Lehenengo kontsulta dohainik izango da. Interesatuak deitu telefono honetara: 78 24 35 (Juan)

✓ Neska bat umeak zaintzeko edo enplegatu bezala lan egiteko prest dago. Harremanetarako telefonoa: 79 06 68 (Ana)

✓ 21 urteko neska euskalduna umeak zaintzeko edo zerbitzari bezala lan egiteko prest dago. Tfnoa: 79 87 40

Etxebizitza

✓ Gasteizen ikasketak egiten eta gure ordutegiarekin bat datorren jendea bilatzen ari gara. Tfnoak: 76 55 70- 79 36 93.

✓ Erdi jantzitako solairua salgai dago San Miguel auzoan. Interesatuak deitu 79 76 72 telefonora.

✓ Bi ikasle, pisu txiki bat alokatzeko beharrean aurkitzen dira. Interesatuak deitu 79 91 28 telefonora (Susana). Asteguntan, 8etatik aurrera.

Salerosketak

✓ Garaje bat salgai dago Andra Mari Zuri auzunean. Interesatuak deitu 79 68 35 telefonora.

✓ Eskoriatzan garajeak daude salgai. Interesatuak telefono hauetara deitu dezakete:

79 16 05 (Kontxi)

79 43 73

71 47 27

71 41 51

71 47 14 (12.30etatik aurrera)



EGIZU KEINU NATURALA

Ez zaizu ezer kostatzen



Izugarri balio du



DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Obra Hidrauliko eta Ingurugiro Departamentua
Departamento de Obras Hidráulicas y Medio Ambiente